

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUKO
GOBERNU BATZORDEAREN KARGUA HORNITZEKO
HAUTESKUNDEAK

Tatiana González San Sebastián andreak, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako Sailburuaren Kabineteko Zuzendari izendatu dutela medio, Gobernu Batzordeko 3. Diputatuaren karguari uko egin behar izan diola eta, Abokatuen Bazkun Ohoretsu honen Gobernu Batzordeak adostutakoaren arabera, 2013ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, aipatu kargua hornitzeko hauteskundeen deialdia egitea erabaki du, ondoren zehazten den moduan eta hurrengo betekizunekin:

1º.- Hornitu beharreko kargua: **3. Diputatua.**

2º.- Kargu horren iraupen epea **2016ko amaierara artekoa** izango da.

3º.- Abokatutzaren Estatutu Orokorraren 49-1. artikulua xedatzen duenaren arabera, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren esparruan hautesle egoiliarren direnak aurkeztu ahal izango dute euren burua **hautagai** izateko, baldin eta hurrengo egoeraren batetan ez badaude:

- a) Kargu publikoetarako desgaitasuna edo esekipena daraman epai irmo batek zigortu izana, aipatu zigor horiek irauten duten bitartean.
- b) Edozein Abokatu Bazkunean diziplina zehapena jaso izana, birgaitzen ez duten bitartean.
- d) Bestelako Elkargo Profesionaletako organo zuzendarien kide izatea.

Hauteskunde deialdia baino hiru hilabete lehenago bazkun-kide diren guztiek parte hartu ahal izango dute **hautesle** modura.

4º.- Hauteskundeetan, jardunean ari diren Abokatuen botoak balio bikoitza izango du beste bazkun-kideekiko, eta botoen gehiengoa lortzen duten hautagaiak jasoko du hautetsi izaera. Berdinketarik bada, jardunean ari direnen artean boto gehien jaso duena izango da hautetsi; horrela ere berdinketak jarraitzen badu, jardunean denbora luzeagoan aritu dena izango da; eta horrek ere berdinketa apurtzen ez badu, adin nagusiagokoa (Abokatutzaren Estatutu Orokorraren 49-4. artikulua)

5º.- Hauteskundeak, **2013ko ekainaren 20an, osteguna,** izango dira; mahaia **9:00etan** eratuko da eta **17:00etan** itxiko.

Bazkuneko egoitzan egingo da hauteskundera, Bilboko Uribitarteko Aldapak, 3, beheko solairuan.

6º.- Hautagaitza Bazkuneko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, hauteskunderarako finkatutako eguna baino **15 egun lehenago**. Epe amaiera **2013ko ekainaren 4an, 19:00etan** izango da.

Hautagaitza horiek hautagaiak eurek baino ezin izango dituzte izenpetu.

7º.- Gobernu Batzordeak, aurkezpen epea amaitu eta hurrengo egunean izendatuko ditu hautagaiak, legezko eskakizunak betetzen dituztenen artean. Une berean, aurkaririk ez bada, hautagai bakarra hautetsi izendatuko du.

8º.- Hauteskunde prozesuan zehar, edo bere emaitzaren aurka, helegiterik tartekatzen bada, efektu bakarrean onartuko dira helegiteok, eta ez dute bozketa etengo, ezta hautetsien izendapena eta kargu hartzea ere, baldin eta bestelakorik adosten ez bada berariazko ebazpen arrazoitu baten bitartez, salbuespenezko zioak medio.

Deialdi honekiko Gobernu Batzordeak hartu duen berariazko erabakiaren arabera, indarrean dagoen Abokatzaren Estatutu Orokorrak (658/2001 ekainaren 22ko Errege Dekretuak onartu zuenak) aurreikusten ez duen edozein gaitan, eta arauketa berririk onartu ezean, honako hauteskunde hauetan antzinako Estatutu Orokorrak hauteskunde prozedura arlo honetan ezartzen dituen arauak aplikatuko dira.

Beraz, bazkun-kide guztiei jakinarazten zaie, Abokatzaren Estatutu Orokorrak eta honekin bat datozen bestelako Xedapenek ezarritakoaren efektuetara.

Bilbo, 2013ko maiatzaren 10ean.



NAZARIO DE OLEAGA PARAMO
DEKANOA



JAVIER BOLADO ZARRAGA
IDAZKARIA